



2022/2023 denboraldia

17. ZIRKULARRA

GORENGO KADETEEN LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Gorengo Kadeteen liga txapelketa honela antolatu du:

1.KLUB PARTAIDEAK

GRUPO 1 TALDEA

- 1 GURE TXOKOA K.K.E.
- 2 REAL UNION CLUB SAD "B"
- 3 MARIÑO C.D.
- 4 BETI GAZTE K.J.K.E.
- 5 BETI ONA C.D. "B"
- 6 AÑORGA K.K.E "B"
- 7 IGELTEGI DE DONOSTIA C.F.
- 8 EKINTZA K.E.
- 9 LENGOKOAK K.E. "B"
- 10 VASCONIA C.D. "C"
- 11 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE "B"
- 12 KOSTKAS KE "C"
- 13 HERNANI C.D. "B"
- 14 MARTUTENE K.E.
- 15 SAN MARCIAL C.D.
- 16 TOURING KE

GRUPO 2 TALDEA

- 1 ZARAUTZ KE "B"
- 2 USURBIL F.T.
- 3 URNIETA K.E.
- 4 IDIAZABAL K.E.
- 5 BERGARA K.E. "B"
- 6 ZESTOA K.B.
- 7 LAGUN ONAK C.D. "B"
- 8 BURUMENDI F.G.
- 9 BEASAIN S.D. "B"
- 10 DANENA K.E. "B"
- 11 REAL SOCIEDAD S.A.D. "C"
- 12 LAZKAO K.E.
- 13 ALOÑA MENDI K.E.
- 14 BILLABONA K.E.
- 15 UROLA K.E.
- 16 ARRASATE C.D.

2.LEHIAKETA SISTEMA

Gorengo Jubenilen liga txapelketa **32 taldek** osatzen dute 16 taldeko 2 multzotan banatuta. Fase bakar batean jokatu da: puntuen bidez eta bi itzulietara (30 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

Multzo bakoitzeko lehen sailkatuek finala jokatu dute zelai neutralean, mailako txapeliduna izendatzeko.

Kadeteen Ohorezko Mailara igoko dira maila horretako beste talderen batekin mendekotasun edo filialtasun harremanik ez duten multzo bakoitzeko lehenengo bi



sailkatuak. Beharrezkoa izanez gero, multzo bakoitzeko hirugarren sailkatuek 5-6 postua jokatu dute, kanporaketa bikoitzean, zelaiaren zozketa egin ondoren, mailaz igotzeko plaza libreak egonez gero, lehentasun ordena zehazteko.

Kadeteen 1. Mailara jaitsiko dira multzo bakoitzeko azken hiru sailkatuak (3x2 = 6).

3. IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienaz zazpi ordezko egongo dira aulkian.

4. JOKALARI INFANTILEN PARTE HARTZEA KADETE MAILAN

"Azken urteko ohorezko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.
- Foru Erakundearen baimena, eskolarteko infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten.
- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea.

5. PARTE HARTZE BIKOITZAREN ARAUZKO ONDORIOAK

Aurreko puntuan deskribatutako baldintzak beteta, infantilen azken urteko jokalariek goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute, baina infantilen taldean lerrotatze desegokiaren okerra egingo da, asteburuan bi partidatan parte hartzen badute, nahiz eta egun desberdinetan egin.

6. DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

7. XEDAPEN OROKORRA



"Koltxoi" mailaren kontzeptua mantendu egiten da, eta beraz maila honetan egon daitezkeen plazak ondoren aipatzen den eran eta hurrenkeran beteko dira:

- a) Kadeteen 1. Mailako talde bat igota.
- b) Gorengo Kadeteetatik jaitsitako taldeen artean ondoen sailkatu denaren jaitsiera saihestuta.
- c) Eta horrela behin eta berriro.

8. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalaturik, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzea, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

Donostia, 2022ko iraila

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General